



Soziolinguistika albistaria

37. zenbakia

2018ko maiatzak 18 - 31

Soziolinguistika Klusterraren albisteak1

NPLDren jardunaldia eta urteko Batzar Nagusia Valentzian

NPLD (Hizkuntza Anitzasuna Sustatzeko Sarea) Europako hizkuntza gutxituetako lurrealdeetako gobernuak, elkarrean eta ikerketa guneak biltzen dituen sareak bere urteko batzar nagusia egin du Valentzian, Soziolinguistika Klusterra ere tartean zela. Besteak beste, hainba...

EHUren Uda Ikastaroetan bi aukera eskainiko ditu Klusterrak

"Zer egin ahozko komunikazioa eskolan lantzeko?" tailerra (2018/7/4-5) eta "Jendaurreko euskarazko komunikazioa: praktikatik ikasten" ikastaroa (2018/7/9-10)

Ikerketak

E5 proiektuaren azken mintegia ekainaren 8an

(*Eusko Ikaskuntza*) XVIII. Kongresua: Geroa Elkar-Ekin. Ekainaren 8an e5 proiektuaren azken mintegian parte hartu!. Mintegi honen abiapuntua pasa den otsailaren 23an egin genuen bigarren mintegiaren emaitzak izango ditugu. Saio hartan, sorkuntza tailer baten bitartez, komunitate-kapital...

Lasarte-Oriako "Baietz 40 egun euskaraz" ikerketaren emaitzen liburuxka

(*Udaltop*) Lasarte-Oriako Udalak Udaltopen aurkeztu eta banatu zuen Armairutik atera ginenezko liburuxka eskuragarri duzue dagoeneko bertsio digitalean, Lasarte-Oriako Udalaren webgunean.

Hizkuntza anitzasunaren kudeaketa Erresuma Batuko ikasgeletan

(*Azkue Fundazioa*) 2018ko Maiatzaren 25a. EHU-UPV Unesco Katedra. Artikulu honetan ikerketa baten egileak bere aurkikuntzen berri ematen digu. Ikerketa, Erresuma Batuko irakasleek ikasgeletan dagoen hizkuntza anitzasunari dagokionez erakusten duten jarrerei buruzkoa da.

Jardunaldi, hitzaldi eta ikastaroak

IV Jornades “La recerca sociolingüística en l'àmbit de la llengua catalana”

(CUSC-UB) El 14 i 15 de juny, tindran lloc les IV Jornades “La recerca sociolingüística en l'àmbit de la llengua catalana” a la sala Nicolau d'Olwer de Institut d'Estudis Catalans (Carme, 47).

“Munduko jatorrizko hizkuntzen biziberritzeko prozesuak eta Helduen Euskalduntze Alfabetatzea. Zer dugu jasotzeko eta zer emateko?”

(UEU) Euskal Herrian azken hamarkadetan egindako ibilbidea inspirazio bide da jatorrizko herri askorentzat; batez ere Hego Amerikako herri asko ari dira Garabide elkartarekin eta UPV-EHUko Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedrarekin elkarlanean euren biziberritze pro...

'Zenbat gara? Nondik jo?' Euskal kultur kontsumoaaz jardunaldia [BIDEOA]

(Berria) Euskal kulturaren kontsumoaaz Siadecok eta Elkarrek osatutako ikerketa aztertu dute, Martin Ugalde kultur parkean, Jakinek antolatu duen mahai inguruan. Josu Amezagak, Olatz Osak, Gorka Arrese, Arantxa Iturbek eta Joxean Muñozek parte hartu dute.

Aktibazioaren garrantzia azpimarratuta bukatu da aurtengo Udaltop

(Udaltop) Euskaraldiak izan du protagonismoa eta Euskal Herri osoko lekukotzak izan dira. Lantegietan garatzen dituzten hizkuntza planak eta Galeseko hizkuntza politikaren nondik norakoak ere ezagutzeko aukera izan da, besteak beste. Inoizko partaidetzarik handiena izan du au...

Liburuak eta artikulu zientifikoak¹

Encrucilladas da diversidade lingüística europea. Kiel – Santiago de Compostela

(Observatorio da Lingua Galega) Esta obra está dedicada a reflexionar sobre as linguas de Europa, con ou sen Estado, concibido desde dúas universidades europeas: Kiel e Santiago de Compostela. No volume inclúese catro ensaios escritos desde unha concepción sociolingüística, coma os de Alastair ...

Contra a morte das linguas

(HABE liburutegia) Baixo o provocativo título Contra a morte das linguas. O caso do galego preséntase unha perspectiva anovadora para a interpretación de dúas realidades interdependentes: a diminución da diversidade lingüística, no nivel planetario, e a situación do galego, no ...

The multilingual edge of education

(HABE liburutegia) This book highlights the need to develop new educational perspectives in which multilingualism is valorised and strategically used in settings and contexts of instruction and learning. Situated in the current educational debate about multilingualism and ethno-linguis...

¹Dokumenturen bat edo informazio bibliografiko gehiago nahi izanez gero, jo zuzenean **HABE Liburutegira** (liburutegi@habe.eus), beraiek arduratuko baitira zure eskaria bideratzen.

Bestelako albisteak

Hizkuntza praktikak vs. hiztunak

(*Garaigoikoa*) Bat aldizkariaren 104. zenbakian Eduardo Apodakak eta Jordi Moralesek oso artikulu mamitsua idatzi dute: “Hiztun kategorietatik hizkuntza praktiken erregistroetara: erabilera sustatzeko neurriaren bila”. Egin nezakeen artikuluaren laburpena, egin nezakeen kritika...

Hizkuntza Eskubideen Protokoloaren euskal bertsioa prestatzen ari dira 80 eragile

(*Argia*) Urte eta erdi pasa da Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa Donostian aurkeztu zutenetik. 185 neurri prestatu dituzte Europako hizkuntza gutxiagotuetako komunitateen hizkuntza eskubideak bermatzeko. Europarako neurriak horiek. Orain ordea, neurriok Euskal Herrir...

Euskaragileak enpresa batzordeak arlo sozioekonomikoaren euskalduntzean aldaketa emateko konpromisoa berretsi du

(*Kontseilua*) Euskaragileak enpresa batzordearekin batera agerraldia egin du Kontseiluak. Batzordea sortu zenetik, 2015eko irailean, gaur egun arte egindakoaren berri emateaz gain, aurrera begirako erronken berri eman dute. Arlo sozioekonomikoaren euskalduntzean jauzia emateko a...

OHARRA: Soziolinguistika Albistaria egokitua dago Datuen Babeserako araudi berriak eskatzen dituen betebehar guztieta. Gogoan izan Albistariaren zenbaki bakoitzaren amaieran dagoen loturaren bidez harpidetza eteteko aukera duzula Zure datuak ematean baimen zehatza ematen duzu zure interesekoa izan daitekeen informazioa bidaltzeko (bai paperez bai baliabide elektronikoak erabilita). Zure esku dago sarbide, zuzenketa, ezeptapen eta aurkaritza eskubideak erabiltzea. Hala egin nahi izanez gero, idatzi helbide honetara: Soziolinguistika Klusterra. Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain edo posta elektroniko honetara: kluster@soziolinguistica.eus. Era berean, norbaiti Soziolinguistika Albistarian harpidetza egiteko gonbidapena egin nahi izatekotan, lotura honetan bere datuekin izen emateko gonbitea luzatu diezaiokezu: <http://eepurl.com/ckM8Kz>



BABESLEA



Gipuzkoako
Foru Aldundia

BAZKIDE PARTAIDEA

